Adi! Otso handi badator!

Itzultzailea: Idoia Arruti

Amorebieta-Etxano: Ibaizabal, 2015

ISBN 978-84-8394-925-2

ISBN 978-84-8394-924-5

Ezkutaketan jolasten hasi dira, eta Émile Jadoulen otso sudurluzea badoa beste animalien bila. Baina, jolasten ari da, edo, aitzitik, saskiratutako animaliak oso-osorik jan nahi ditu?

Umeak liburuaren azal-hegalak altxatuko ditu, eta, hala, otsoari lagunduko dio untxitxo maitagarri bat, txerritxo potolo bat, oilanda txiki bat eta ardi txiki bat aurkitzen. Azkeneko orrialdean, jolasa bukatu da: «Listo! Eta orain... mahaira! Mmmmm...». Ondoren gertatzen dena jakiteko, azken azal-hegala altxatu beharko dugu.

Egitura errepikakorra eta testu laburrak erabilia, egileak txiki-txikien jakin-mina eta arreta bereganatzen ditu. Umeak berak lagunduko dio otsoari animaliak bilatzen, baina, aldi berean, otsoaren begiradak eta barreak interpretatu beharko ditu.

Orrialde bikoitzez osatutako album gogorra da: lehenengoan, kolore gorria da nagusi, eta, hurrengoetan, lurraren gorriak eta paretaren zuriak beltzez perfilaturiko irudiak nabarmentzen dituzte. Irudi eta testuaren arteko irakurketa bateratuak umearen ikuspuntu kritikoari dei egiten dio.

Jadoulekin, berriro ere, lortu du haur txikiak gozarazteko liburu bat.



4 urtetik aurrera

Añorga, Pello

Munstroek ere pixa egiten dute ohean

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Arre: Pamiela, 2015

ISBN 978-84-7681-917-2

Ipuin honetako munstroak beste nonbait ikusi ditugulakoan bagaude, Pello Añorgak beste ipuin oso ezagun bati keinu egiten diolako baino ez da. Eta ez edonolako ipuinari, ez horixe: Maurice Sendak-en *Piztiak bizi diren lekuan*, alajaina!

Munstroek ere pixa egiten dute ohean ipuinak Sendak-en unibertsoari erreferentzia egiten dion arren, Añorgaren ipuina bestelakoa da.

Valentina da protagonista, eta bere munstro txiki maitagarri guztiekin oheratzen da gauero. Gau batean, ordea, munstro gaizto bat agertuko zaio, eta, beldurraren beldurrez, pixa egingo du ohean.

Gure Valentina ausarta, orduan, bere munstro txiki guztiak lagun dituela, munstroen herrialdera joango da, eta gaiztoari gailenduko zaio.

Ipuin honen mezua da hurrek beldurrak gainditzen ikasten dutela. Eta ondo lortzen du mezu hori transmititzea, zeren kontakizunean tentsioa gehituz baitoa, eta beldurra indarra hartzen, pixkanaka-pixkanaka, ilustrazioen ezinbesteko laguntzarekin. Bukaeran, ordea, lasaitu ederra hartuko dugu, ipuin eder guztiekin lez, haurrak urrats garrantzitsu bat emango baitu bere heldutasuna lortzeko.

Album ilustratuen Etxepare Saria irabazi zuen *Munstroek pixa egiten dute ohean* ipuinak 2015. urtean, eta ondo merezia du saria.

Desbordes, Astrid

Nire maitea

Ilustratzailea: Pauline Martin

Donostia: Ttarttalo, 2015

ISBN 978-84-9843-654-9

Ipuinaren azala ikusi orduko antzemango diogu ipuinaren gaiari: amaren maitasuna.

Haur literaturan maiz erabilitako gaia da, baina, hala ere, esku artean dugun ipuina aipatu beharrean gaude.

«Lotarako ordua da, eta Xubanek bere amari galdetzen dio:

- Amatxo, beti-beti maiteko nauzu?



- Entzun adi, sekretutxo bat kontatuko dizut».

Horrela hasten da ipuin samur hau. Astrid Desbordes idazle eta filosofoak, eguneroko egoerak erabiliz, amaren baldintza gabeko maitasunaz hitz egiten digu; eta adierazten digu nola, akatsak egin arren, edo porrot; batzuetan haserre eta umore txarrez egon arren; edo maitasuna adieraztea zaila denean; edo baita urrun egonik ere, amaren maitasuna hor dagoen beti, egoera guztietan, eta betiko. Amaren bikotekideak (umearen aita izan edo ez) haren bizitzan hartzen duen lekua ere islatzen du idazleak, baita umearen mendetasunik eza, ama eta umearen arteko lotura askea baita.

Testu gutxi erabiltzen du idazleak, esaldi xumeak baina ondo hausnartuak, sentsibilitatez beteak, zainduak. Bi orrialdetan zabaltzen da esaldi bakoitza, egoera kontrajarriak adieraziz:

«Lortzen duzunean maite zaitut, baita lortzeko bidean zaudenean ere».

Pauline Martin ilustratzaileak marra fina darabil irudietan, kolore gutxi eta lauak, zuria nabarmenduta. Ilustrazioak adierazgarriak dira eta ipuinaren samurtasuna indartzen dute.

Album ederra, keinu dibertigarritz ziprztindua, haurrekin konpartitu eta disfrutatzeko.

Dipacho

Bi txori

Donostia: Ttarttalo, 2015

ISBN 978-84-9843-578-8

Bi txori, bata zuria eta bestea beltza. Zuhaitz handi batean bizi dira. Halako batean, txori batek lanpara bat ekartzen du eta arbolaren adar batean jartzen du. Segidan, bigarrenak liburu bat ekartzen du, eta beste adar batean jarri. Horrela hasten da kontsumismoari eta lehiari buruzko ipuin hau. Gauzak pilatzeko ahaleginen eta txorien arteko lehiaren ondorioz, behar ez dituzten objektuz gainezka ikusiko dugu zuhaitza. Zertarako, ordea? Txoritxoek ez dakite nola erabili etxean dituzten kafeterak, bizikleta, ardo-kopak edo baloia. Baina gauzak pilatzen doaz, gero eta gehiago. Umerez jositako albuma da, umore fina eta kritikoa, baina berehala hausnarketarako bidea erakusten diguna. Kontsumo-gizartea, neurrigabekeria, ondasunei ematen diegun garrantzia, ondokoa baino gehiago izan nahi hori... Gai sakonak, era sinplean azalduta. Irakurleak berehala antzematen du egoera horrek ez duela inongo zentzurik. Adarrak puskatu, pilatutako gauza guztiak erori eta zuhaitzaren enborra besterik ez da geldituko. Txoritxoek ondo baino hobeto ikasiko dute ikasgaia, guztia galduko dute, baita zuhaitzean zituzten adar ederrak ere.



Dispacho ilustratzailea kolonbiarra da, eta hainbat sari eman dizkiote. Estilo zaindua du, eta kontatzen dizkigun istorioak xumeak bezain sakonak dira.

Inolako zalantzarik gabe, *Bi txori* aukera ezin hobea dugu. Edizio zaindua, ilustrazio bikainak eta hitzik gabeko narrazio sendo batekin dator. Hurrek erraz irakurriko dute liburu hau, eta guztiok gogoeta egiteko parada izango dugu. Hitzik gabe, asko esaten duen liburua!

Minarik, Else Holmelund

Hartz txikiren bisita

Hartz txiki

Hartz aita etxera dator

Hartz txikiren laguna

Musu bat hartz txikirentzat

Ilustratzailea: Maurice Sendak

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Arre: Pamiela ; Pontevedra : Kalandraka , 2015

ISBN 978-84-7681-838-1

ISBN 978-84-7681-827-5

ISBN 978-84-7681-897-8

ISBN 978-84-7681-828-2

ISBN 978-84-7681-898-5

Jatorriz, 1957. urtean argitaratu ziren lehen aldiz Hartz Txikiren ipuinak, eta, oraingoan, Pamiela eta Kalandraka argitaletxeen eskutik euskaraz datozkigu, Maurice Sendaken ilustrazio zoragarriekin. Egunerokotasunean kokatzen diren ipuintxoak izango ditugu irakurgai, oso hurbilekoak eta xamurtasunez beteak.

Egileak maisuki jorratu ditu hurrei hurbilekoak zaizkien sentimenduak, hala nola lagunetikiko leialtasuna, familiaren garrantzia eta babesaren beharra. Ildo horretatik, hauek lirateke bilduma honen ezaugarri nagusiak: gozotasuna eta xamurtasuna. Hori guztia gorpuzteko, ipuinek hiztegi erraza darabilte, ulerkorak dira, eta, egitura aldetik, sinpleak.

Aipatzekoa da Manu López Gaseniren itzulpen egokia. Eta ezin aipatu gabe utzi Maurice Sendaken ilustrazio bikainak. Maisuki jakin du nola islatu egileak iradoki nahi izan dituen sentimenduak. Irudiak ezin hobeto uztartuta daude testuaren eta istorioaren tonuarekin, eta ukitu pertsonala ematen diote obra guztiari.

Klasiko handi bat berrirakurtzeko aukera paregabea, edizio zaindu eta txukunean.



6 urtetik aurrera

Isern, Susanna

Hartzatxoa, jirafa zaharra eta harrizko pareta

Ilustratzailea: Betania Zacarías

Itzultzailea: Arkaitz Goikoetxea

Fraga: Fragatina, 2015

ISBN 978-84-16566-01-3

Berezia izaten da liburu berri bat eskuartean hartzen dugun momentua. Izan ere, istorio berri bat deskubritzeko aukera ematen digu. Susanna Isern idazleak ipuin hunkigarria idatzi du, hiri-kondaira batetik abiatuta. Ohartuko gara zeinen garrantzitsuak diren hitzak eguneroko bihozmina eta egoera latzak arintzeko. Sekulako indarra du hitzak norbera egoera batetik bestera eramateko.

Zoo bat, eta, han, hartz txiki eta triste bat. Harrizko pareta handi batez inguraturik bizi da. Zorionez, auzoan duen jirafak alaitu egiten dizkio egunak, kanpoko aldean – harrizko paretaren beste aldean– gertatzen den guztiaren inguruko istorioak kontatuz. Egia edo gezurra izan, jirafaren kontuek gure hartz txikiaren egunerokoa alaitzen dute, mundu zoragarri bat irudikatzen eramatean baitute. Liburuaren bukaeran, ordea, errealitatea agerian geratzen denean, adiskidetasunaren garrantzi handiaz konturatuko da hartzak. Adiskidetasuna, gupida, enpatia... Hitz potoloak dira, baina ezinbestekoak, bizitzaren ikastaldi honetan.

Koloreak trebetasunez erabiltzen ditu Betania Zacarías argentinar ilustratzaileak, testuaren mezua indartzeko moduan. Kolore argiak eta alaiak kanpoaldean dagoen mundu zoragarria irudikatzen, eta kolore neutroak eta motelak, berriz, bakardadearen eta inkomunikazioaren tristura azpimarratzeko. Irakurlea berehala konturatzen da hartzaren tragediaz, eta sentimendu gazi-gozoek pizten zaizkio.

Susanna Isern idazleak oso ezagunak diren hainbat liburu ditu argitaratuak. Esan behar da Isern psikologoa dela, eta halako kasuetan badela arrisku bat: literatura lan-tresna gisara darabilen psikologo baten emaitza izatea bere obra. Baina ez dugu halako zantzurik atzeman. Idazleak ondo neurtu ditu hitzak eta asmoak, eta gure ustez album honek lasai asko merezi du aurtengo liburu kuttunen artean egotea; are gehiago, iruditzen zaigu haur literaturako liburu on batek izan behar dituen ezaugarri guzti-guztiak betetzen dituela. Hots: zirrargarria, hunkigarria, imajinarioaren eta jakin-



minaren pizgarri izatea, egoera ezberdinei buruz hausnartzera bultzatzea, eta irakurtzen jarraitzeko grina sortzea. Profitatu zooak ematen digun ikasbide hau!

8 urtetik aurrera

Dubois, Claude K.

Akim ihesi

Itzultzailea: Aztiri itzulpen zerbitzuak

Donostia: Ttarttalo, 2014

ISBN 978-84-9843-601-3

Zoritxarrez, batzuetan halako liburuak plazaratu behar izaten dira; zoritxarrez, diogu, benetako istorioak direlako.

Akim eta beste haur batzuk jolasean dabilta, harik eta haiekin zerikusirik ez duten gerra eta bonbardaketak herrira heltzen diren arte. Inguruko hondamen eta jende oldearen artean, Akimek bere etxea txikituta aurkituko du, eta familiaren arrastorik ez. Eta orain, nora joan? Zer egin? Istant batean Akimen bizitza aldatu egin da, eta ez dago atzera bueltarik. Bizirik ateratzeko, gerratik ihes egin behar du Akimek, herritik irten, eta guk haren ihesaldia ezagutuko dugu: heriotza, bakardadea, beldurra, gerraren krudeltasuna... beste haur eta heldu askorena bezalako ihesaldia.

Claude K. Dubois belgikar artistak haurren begiradara hurbildu nahi izan du gerraren zentzugabekeria, baina ez bakarrik gerratik ihes egin behar dutenen biziraupen gogorra ezagutarazteko, baizik eta iheslarien begiradatik ikusarazteko, haiekin empatizatzen laguntzeko, mundua hobeto uler dezagun.

Hainbat sari jaso ditu irudidun liburu honek, eta ez da harritzekoa. Egileak irudiak erabiltzen ditu istorioa kontatzeko; ilustrazioek testuak esaten duena azaltzen dute, baita esaten ez duena ere. Oso errealistak eta gordinak dira. Arkatez eta sepia kolorez egindako bozetoak dira —orrialde batzuetan, zirriborro lausoak—, noizean behin bizipenak arrapaladan gertatzen direla adierazteko.

Akim ihesi liburu triste eta hunkigarria da, baina beharrezkoa da horrelakoak ere haurrei kontatzea.



Janosch

Neuk sendatuko zaitut, tigre: behin batean tigre txikia gaixotu zenekoa

Itzultzailea: Idoia Irazustabarrena

Arre: Pamiela; Pontevedra: Kalandraka , 2015

ISBN 978-84-7681-869-5

Hartz Txiki eta Tigre Txikiren laugarren abentura dugu hau. Janoschek sorturiko pertsonai maitagarri horiek beren bizitzako beste atal bat kontatuko digute. Oraingo honetan, tigre txikia gaixotu egingo da, eta bere lagun leiala arduratuko da hura zaintzeaz. Janari gogokoenak prestatuko dizkio, lagunei deituko die bisitan joan daitezen, eta, azkenean, denok batera Animalien Ospitalera joango dira, tigrearen gaixotasun harrigarriarentzat sendabidea aurkitzeko.

Janosch idazle eta ilustratzaile emankorrak gizatiarturiko animaliak erabiltzen ditu istorio alai eta baikorrak kontatzeko. Animalien egunerokotasunean murgiltzen gaitu, elkarrizketa umoretsu eta dibertigarriak erabiliz. Adiskidetasuna, ezbeharrak gainditzeko grina eta elkarri laguntzea dira ipuinean jorratzen diren balio positiboak.

Ilustrazioak ezinbestekoak dira, alaiak, koloretsuak eta garbiak. Natura idealizatu bat erakusten dute, zeinak testuari goxotasun handia ematen baitio, eta irakurlea hunkitzen.

Liburu eder eta samur honetan egiazko adiskidetasuna jorratzen da, une zailetan erakusten den horietakoa, ezpainetan irria sortzen duen modu alai eta goxo batean.

Kazabon, Antton

Makal sendoak

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Berriozar: Denonartean, 2015

ISBN 978-84-15756-81-1

Makal bat, bi makal, hiru makal bizi ziren, erreka-zulo batean zegoen zelaitxoan. Bi makal ikaragarri, bere makalean sendoak. Eta, haien artean, hirugarren makala, gaztea, txikia, osasuntsu hazten zihoana, bi helduen artean babestuta bizi zena.

Eguna joan, eguna etorri, han zeuden tente eta bizirik hiru makalak. Udaberria joan, negua etorri, han irauten zuten bizirik hiru makalak. Biluzten eta janzten, giro epelean, euritsuan, hotzari aurre egiten, haizearekin jolasten.

Baina negu gogor batek naturaren haserre guztiak ekarri zituen: euria, hotz gogorra, haize bortitza. Egundoko txikizioak izan ziren herrian, etxeetan, basoetako zuhaitzetan,



eta haize madarikatuak bi makal helduen bihotzak harrapatu, eta eraman egin zituen, eta gaztea bakarrik utzi, negarrez, penaz, bihotza itxirik.

Negua joan, udaberria etorri, eta makal gazteak begiak ireki zituenean makal zaharren tokian bi landaretxo ikusi zituen, berde, bizi-bizirik, makal baina indartsu. Eta bihotza ireki zitzaion berriz, eta bizitza sentitu zuen.

Liburu poetikoa, bizitzaren metafora, hunkigarria eta gozagarria. Bizitza eta heriotza, naturaren zikloa.

Jokin Mitxelenaren ilustrazioak ederrak dira, makalen istorioaren bidelagunak.

10 urtetik aurrera

Modiano, Patrick

Catherine Certitude

Ilustratzailea: Sempé

Itzultzailea: Juan Luis Zabala

Donostia: Erein, 2015 (Auskalo; 48)

ISBN 978-84-9746-998-2

Bi mundutan bizi da Catherine Certitude neska koxkorra; betaurrekoak janzten dituenean mundu erreala ikusten du, gogorra, ertzez beterikoa. Erantzten dituenean, berriz, lainotsuago, goxoago ikusten du dena, xarma berezia dauka munduak orduan.

Aitarekin Parisen pasatutako haurtzaroko urteak ere bereziak izan ziren. Orduko oroitzapenak kontatzen dizkigu Catherine Certitude helduak liburu honetan. Ama, amerikarra jatorriz, New Yorke dantzaria zen. Bera eta aita, berriz, aitaren lana zela eta, Parisen bizi izan ziren urte batzuk, eta urte haiek dira, hain zuzen ere, gogora ekarriko dituenak.

Aitarekin zuen konplizitateak irribarrea sortzen du pasadizo batzuetan, eta benetako emozioa besteetan. Bigarren mailako pertsonaiak, berriz, ezinbestekoak dira istorioa testuinguru jakin batean kokatzeko (Casterade jauna, adibidez, aitaren negozio susmagarrietako bazkidea; edota Galina Dismailova, neskaren dantza irakaslea, ustez Errusiatik etorritakoa, baina, errealitatean, frantziar peto-petoa). Haien bitartez, garai



hartako gizarteari kritika zorrotza egiten zaio. Kontakizun laburra da, itxuraz sinplea baina sakonean gai asko ukitzen dituen, ironia eta umore fina erabiliz.

Modianok Nobel Saria jaso zuen 2014. urtean, eta liburu txiki hau aukera ezin hobe da haren lanera hurbiltzeko. Sempé handiaren ilustrazioek osatzen dute liburua; xehetasunez betetako akuarela goxoak dira, eta maisuki irudikatzen dute 60. hamarkadako Paris hura.

Liburu honek sentimendua dauka, eta nostalgia ukitu batekin kontaktuta dago. Catherinek bezala, mundua beste begi batzuekin ikusteko, ideia ona da batzuetan betaurrekoak erantzi eta amets egitea.

14 urtetik aurrera

Asimov, Isaac

Robbie eta beste kontakizun batzuk

Ilustratzailea: David Shannon

Itzultzailea: Koro Navarro

Barcelona: Vicens Vives, 2015 (Literatura-eskola; 12)

ISBN 978-84-682-1976-9

Zientzia-fikzio zaleek aukera paregabea izango dute lehen aldiz euskaratu duten Isaac Asimoven ipuin bilduma honetan murgiltzeko. Baina egile jatorriz errusiar horrek baditu hainbat ñabardura bestelako irakurleak ere erakartzeko. Izan ere, errobotez eta ordenagailu miragarritz haratago, gizakiaren eta gizartearen botere-mekanismoen inguruko gogoeta sakonak erakutsiko baitzikigu, eta hausnarketarako parada ezin hobe eskainiko.

Ipuinok joan zen mendearen erdialdean idatzi zituenez, etorkizuna irudikatzeko gaitasun paregabea erakusten du Asimovek. Izan ere, gaur egungo ikuspuntutik begiratuta, jorratzen dituen gaiak ez baitute gaurkotasunik galdu: zer etorkizun izango du itsu-itsuan aurrerapen teknologikoan sinesten duen gizarte batek? Zer gizarte mota ari gara eraikitzen? Bestalde, aipatu beharra dago Vicens Vives argitaletxeko Literatura-eskola atalean argitaratu dela ipuin bilduma hau. Horrenbestez, egileari buruzko hitzaurre bat ere badakar, testua ulertzeko hainbat ohar, eta, amaieran, ipuinak literaturaren ikuspegitik lantzeko hainbat jarduera.



Ladrón Arana, Alberto

Itzalak bizi diren lurraldea

Donostia: Elkar, 2015 (Taupadak; 45)

ISBN 978-84-9027-362-3

Abentura epiko batean murgilduko da liburu bikain honetara hurbiltzen den irakurlea. Tolkienen ukitua nabari zaio narrazioari, baina, hortik haratago, Ladrón Aranak maisuki lantzen dituen osagai batzuk aurkituko ditugu; hala nola misterioa, eta beldurrezko eleberrien zantzuak, batik bat deskribapen ilunetan. Ildo horretatik, Poeren kontakizunekin pareka dezakegu.

Narrazioaren erritmoak lehen orrialdeetatik harrapatuko gaitu, eta liburu hauetan ohikoak diren elementuak agertuko dira etengabe: magia, dragoiak, edabe magikoak, mirakuluak, kondaira zaharrak, eta abar. Eta hori guztia gorpuzteko, inperio lazgarriaren aurka altxatuko da gure protagonista gazte beldurtia, agure jakintsu eta matxino ausart baten laguntzarekin. Inperioak balore berriak irudikatzen ditu: garapena, ekonomiarekiko miresmena, medikuntza alorreko aurrerapenak; arkaniarrak, ordea, tradizioari lotuta bizi dira, lurrari eta tradizio zaharrei atxikita.

Egileak, horrenbestez, gai unibertsal bat jorratzen du: gaizkiaren eta boterearen aurkako borroka, alegia. Horretarako, liburuan zehar bi plano mailakatuko dira: batetik, inperioaren aurkako borroka, eta, bestetik, gure protagonista gaztearen bidaia arriskutsua, elementu magikoz eta fantastikoz hornitua. Horrenbestez, gonbidatuta zaudete liburu bikain honen eskutik abentura zirrargarriak bizitzera.



Zerrenda Berezia

Alberdi, Uxue

Besarkada

Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga

Donostia: Elkar, 2015

ISBN 978-84-9027-414-9

Album ilustratu bat dugu hau, Uxue Alberdik idatzia eta Maite Gurrutxagak ilustratua. Azken horrek dionez, helduentzat pentsatutako lana izan arren, haurrek ere gustuko izango dute. Uxue Alberdiren hitzetan, berriz, kantatzeko aproposa izateaz gainera, ilustrazioekin gozatzeko aukera ere ematen du.

Elgoibartar idazlearen koplak hauek irakurketa ugari izan ditzakete, baina Gurrutxagak bat aukeratu zuen. Irakurri ahala, marrazten hasi zen, istorioa pixkanaka garatzen zihoalarik.

Marrazkiak ikusiz kontatzen den istorio honetan, haurra eta bere aita dira protagonistak. Umeak aitaren besoetan aurkitzen du ekaitzak sortzen dion beldurraren kontrako babesa. Aitak, berriz, etxetik kanpora irtenda laguntzen dio haurrari beldur hori gainditzeko.

Koplen irakurketak, berriz, besarkada batek eskaintzen digunaz hausnartzeko aukera paregabea ematen digu; azken finean, hitzez esan ezin duguna, sarritan, besarkada baten bidez esan dezakegu.

Idazlearen hitzetan, Gurrutxagaren estiloa ezin hobeto egokitu zaio poema honi: zehaztasuna, xehetasuna, goxotasuna, txikitasuna, ukitu iradokitzaileak... Hori guztiori bilatu nahi izan dute, bai hitzetan, bai irudietan.

Bestalde, album ilustratu honekin batera, bideo bat ere sortu dute, zeinetan Uxue Alberdik berak, Eñaut Elorrietarekin batera, Ruben Caballerok musikaturiko koplak abesten baitituzte. Eta Maite Gurrutxagaren irudiek, berriz, bizia hartu dute, Arkaitz Barriola ilustratzaileari esker. Interneten dago, polita iruditzen zitzaielako jendeak *Besarkada* zabaltzeko aukera izatea.



Arrieta, Yolanda

Argiaren alaba

Berriozar: Denonartean, 2015

ISBN 978-84-15756-92-7

XVIII. mendean, duela 200 urte, emakume gazte bat, baserri giroan bizi dena eta euskaraz, latinez eta gaztelaniaz irakurtzen eta idazten dakiena. Bizenta Antonia Mogel (Azkoitia, Gipuzkoa, 1782 - Abanto, Bizkaia, 1854) Markinako idazle, itzultzaile, bertso-paperen egile eta emakume ausarta nor izan zen gazteei erakusten ahalegindu da Yolanda Arrieta idazlea.

Garai hartan, gutxi ziren euskaraz idazten zutenak, eta horien artean ezagunenetako bat Juan Antonio Mogel da (1745-1804). *Peru Abarca* idatzi zuen, euskarazko lehen nobela, eta, hala, euskal idazleen historian leku bat irabazi. Baina gutxik ezagutzen dute haren iloba Bizenta Mogelen historia. Bizenta Mogelek 22 urterekin idatzi zuen *Ipuin onac* liburua, emakumeek irakurtzen eta idazten ez zekiten garai batean.

Idazleak azterketa historiko sakona egin behar izan du Bizentaren bizimodua eta pertsonaia irakurleei hurbiltzeko. Kokapen historikoa ezinbestekoa zen emakume horren lanaren eragina ondo ulertzeko. Liburuan barrena, besteak beste Konbentzio Gerra, Ilustrazio garaia, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen sorkuntza, Humbold, eta garaiko ohiturak eta moralismoa azalduko zaizkigu. Alde historikotik begiratuta, interesgarria da oso, baina badu beste alderdi bat ere, fikziozkoa, Bizentaren egunerokoa osatzen duena, eta idazleak eta haren ilobak obra osatzearren egindako ikerketaren istorioa kontatzen diguna. Kontakizunaren bi plano horietatik aukeratu behar izanez gero, historikoa aukeratzeko dugu, zalantzarik gabe.

Genero aldetik ez da definitzen erraza: narrazioa, biografia, historia, kronika... hainbat estilo uztartzen ditu, eduki mamitsua eta konplexua lantzeko. Arrietak, liburu honi esker, 2015eko Haur eta Gazte Literaturako Euskadi saria jaso zuen.

Dena den, liburu honen balio azpimarragarriena da Bizenta Mogel euskal emakumezko idazlearen izena eta izana berreskuratzea, eta gure historiaren zatitxo bat irakurle gazte nahiz helduen eskuetan jartzea.

Denboran bidaiatzeko aukera paregabea!



Baum, L. Frank

OZ-eko azti harrigarria

Itzultzailea: Juan Kruz Igerabide

Berriozar: Denonartean, 2015

ISBN 978-84-1575-83-5

Lyman Frank Baumen *The Wonderful Wizard of OZ* liburua, W. W. Denslow-en ilustrazioekin, G. M. Hill Companyk argitaratu zuen Chicagon, 1900 urtean.

Istorio fantastiko honek Dorothy Galek Ozeko lurraldean bizitako abenturak kontatzen ditu. Neskatilarekin batera, hainbat pertsonaiak parte hartzen dute istorioan, besteak beste, Txorimaloa, Lehoi izua, Latorrizko aizkolaria eta Ttoto txakurtxo.

Hainbesteko arrakasta izan zuen liburuak bere garaian, ezen Baumekek beste 13 nobela idatzi baitzituen lehenengo liburuko lurralde eta protagonistak oinarri hartuta.

Liburuak edizio ugari izan ditu harrezkero, Estatu Batuetan zein Europan.

Haur Literaturaren historian, liburu honen garrantzia oso nabaria izan da, bi arrazoiengatik: hasteko, nahiz eta literatura fantastikoa izan, narrazioaren hasierako eta amaierako testuingurua Estatu Batuetan kokatzen da, Kansasen, hain zuzen. Europan kokatua ez izatea berritzailea izan zen, eta liburu «nazional» modukoa bihurtu zen. Eta, bigarrenik, istorioak ez du inongo helburu moralik, inolako lezorik. Nahiz eta elkertasuna eta adiskidetasunaren balioak goraiatu, haurrek ondo pasatzeko eta disfrutatzeke istorio bat da, eta autoreak ez du beste asmorik.

Narrazioa oso ondo eraikita dago, eta irakurlea erraz murgiltzen da fantasian eta pertsonaia bakoitzaren gora-beheretan eta desio sakonetan. Egun ere, hainbeste urte pasatu ondoren, gai gara klasiko honen trama gustura irakurtzeko.

Orain, Juan Kruz Igerabideren bertsioa daukagu, euskaraz. Oso testu duina eta landua, irakurleek atseginez irakurtzeko modukoa. Baina edizioak ez digu argitzen zein hizkuntzatatik dagoen itzulita, jatorrizkotik edo gaztelaniatik, eta faltan botatzen ditugu halako zehaztasunak. Bestalde, liburuaren azala Elena Odriozolaren eskutik dator. Badakigu hainbat bertsio egin direla, eta ilustratzaileak ugari izan direla liburu honen historian. Haatik, ohituta gaude edizio klasikoak jatorrizko ilustrazioekin eskuratzen, eta oraingo honetan Denslowen ilustrazioen falta sentitu dugu, hain zuzen.

Dena den, aukera paregabea dugu klasiko bat irakurtzeko eta antzinako istorio fantastikoan ederto murgiltzeko.



Carroll, Lewis

Aliziaren abenturak herrialde miresgarrian

Ilustratzailea: John Tenniel

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Arre: Pamiela, 2015 (Mila gau; 4)

ISBN 978-84-7681-829-9

Alice's Adventures in Wonderland 1865. urtean argitaratu zen lehen aldiz, eta eskuartearen dugun Pamielaren edizio berri hau Manu López Gaseniren itzulpenaren eskutik datorkigu. 150garren urteurrenarekin batera, 1989an argitaratu zen lehen euskal itzulpena eguneratu du Manu López Gasenik.

Itzultzaileak hainbat arrazoi izan ditu lan hori hartzeko: alde batetik, euskararen egoeran eta arauetan izandako aldaketek egokitzapen bat eskatzen zuten, eta, bestetik, itzultzaileak berridazketa gisa ulertzen duelako itzulpena, eta, hurrei begira itzulpen funtzionalagoa edo errazagoa egin nahi zuelako. Dena dela, azken arrazoi horretan datza, gure ustez, itzulpen honen inguruan sortzen den zalantza eztabaidagarria. Itzultzaileak dio, besteak beste: «Nola jakin dezake gurko eta hemengo irakurleak duela mende eta erdi Erresuma Batuan oso ezagunak ziren beste kanta eta poemen parodia direla?» (134 or.). Eta hurrengo orrialdeetan justifikatzen ditu harturiko itzulpen-lizentziak eta itzultzailearen ikusgarritasuna, aldaketak eta egokitzapenak egiteko eskumena aldarrikatuta.

Manu López zintzoa izan da. Argi azaldu ditu bere erabakiak, eta egindako egokitzapenak aipatzen ditu, besteak beste izen propio batzuei (Alice, Mabel, Ada) euskarazko baliokidea ematea; Ingalaterrako historiaren pasarte baten ordez VIII. mendean musulmanak Nafarroan ibili zireneko kontakizuna eranstea; poema batzuen ordez euskal kantu edo abestien bertzio aldrebesak edo parodiatuak jartzea, eta abar.

Badakigu itzulpengintza artelana dela, eta mahai gainean hainbat eztabaida dagoela itzultzailearen ikusgarritasunaren eta askatasunaren inguruan, baina guri ez zaigu egokia iruditu horrelako lizentziak irakurtzea testuan. Carrolllek kantu ezagun batzuen parodia egin bazuen, ez dugu ulertu, eta gure ustez irakurle euskaldunak ere ez du ulertuko, testu originaleko poemen ordez euskal kantu batzuk bertzio aldrebesan irakurtzea.

Amaitzeko, esan nahi dugu itzultzaileak lan handia egin duela. Ziur gaude ez zaiola lan erreza egokitu. Bestalde, Pamielaren apustua ausarta eta egokia izan dela iruditu zaigu. Baina irakurleak jakin behar du, itzultzaileak ondo azaltzen duen moduan, Lewis Carrolren proposamen berri bat dugula hau. Eta irakurleari dagokio aukeratzea.



Gonzalvo, Jorge

Tropezista

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Itzultzailea: Juan Kruz Igerabide

Berriozar: Denonartean, 2015

ISBN 978-84-15756-84-2

Tropezista neska baten izena da. Izen berezi honek badu bere arrazoia, neskak aldioro eta bazter guztietan estropezu egiten baitu. Letra bat aldatuta sortzen den hitz jokoaren bidez, Jorge Gonzalvo idazleak indarra eta balio estetikoak erantsiko dizkio kontatu nahi izan digun istorioari. Zeren, mundu aldrebes honetan, ez dago askotan estropezu egitea baino hobirik, gauzak bide onetik joan daitezten.

Istorio honetan, egun batez Tropezistak gizonezko batekin egingo du estropezu kalean. Holaxe jaioko da bien arteko harreman xamurra, maitasunean, errespetuan eta elkar ulertzean oinarritua.

Elena Odriozola ilustratzaileak irudi zoragarriak jantzi du album hau.

Teknika berritzaileak erabilia, eta testurak aditzera emanez, kontakizunaren emozioak areagotu eta ondu baino ez du egin.

Izan ere, liburu honen erdarazko edizioan saria eman zioten Elena Odriozolari; hain zuzen ere, 2013ko Euskadi Ilustrazio Saria.

Liburuaren konposizioan eta edizioan Denonartean argitaletxe nafarrak eginiko ekarpenak ere testuaren poetikotasuna eta irrealtasuna areagotzen ditu.

Aipaturiko elementu guztiak kontuan hartuta, beraz, publiko askorentzat aproposa izan daitekeen maitasun kontakizun eder bat da.

Kipling, Rudyard

Errege izatekoa zen gizona

Ilustratzailea: Angélica López de la Manzanara

Itzultzailea: Iñigo Roque Eguzkitza

Berriozar: Denonartean, 2015

ISBN 978-84-15756-70-5

Afganistaneko XIX. mendeko bi gizajoren ibilerak eta handinahikeriak kontatzen dizkigu Kipling-ek abentura zaporea duen kontakizun gogoangarri honetan. Garaiko gizartearen hainbat zertzelada eskaintzen dizkigu egileak; hala nola, britainiarren inperialismoa, garaiko gizarte antolamendua, ohiturak, erlijioa, eta abar. Ezin aipatu gabe utzi gaur egungo irakurlearentzat agerikoa izan daitekeen kutsu arrazista. Ildo horretatik, irakurketa gardena eskatzen du liburuak, aurreiritzirik gabea. Pertsonaiak, iruzur eta faltsukeriaz lagunduta, errege izateko ametsetan murgilduta daude, eta, puntu horretan, eleberri pikareskoaren tradizioan koka dezakegu. Irakurketa bat baino gehiago eskaintzen dizkigu eleberriak horrenbestez, eta horixe litzateke liburuaren



bertute nagusia, hainbat irakurketa maila izanik, irakurleari baitagokio sakontasun mailaren hautua. Esku artean dugun edizio hau Angélica López de la Manzanaren irudi esanguratsuez hornituta dago, eta ezin aipatu gabe utzi Iñigo Roque Eguzkitzaren itzulpen zuzen eta zehatza.

Sendak, Maurice

Kanpoaldeko munduan

Ilustratzailea: Edwin Rhemrev

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Arre : Pamiela, Pontevedra: Kalandraka , 2015

ISBN 978-84-7681-861-9

Istorio honetan, mamarro batzuek Aidaren ahizpa nola bahitzen duten kontatuko digu Maurice Sendakek. Aida, gertakari lazgarri honen aurrean, mundu miragarri batean murgilduko da, eta mamarroen aztikeria maltzurra hautsi egin beharko du. Kanpoaldeko mundua arriskutsua da, eta hantxe galduko du inozentzia. Hau da, hain zuzen, liburuaren gako nagusienetako bat: xalotasunaren galera.

Baina ez da irakurketa horretan soilik geratzen, sinbologia eta alegoriaz betetako irudiek bide ematen baitute irakurle bakoitzaren hausnarketa eta interpretazio jarioari. Hona hemen, gure iritziz, liburuaren bertute nagusia: irekita dagoela irakurketa aniztasunari.

Bestalde, aipatu behar dugu Sendaken liburu ilunenaren aurrean gaudela. Estilo errealistan landutako ilustrazioetan xehetasun ugari topatuko ditu irakurleak, eta, horrenbestez, irakurketa lasaia eskatzen du. Dena dela, ez dezala irakurle helduak erreparorik eduki haurrarekin liburu hau konpartitzeko, ustekabeko ugari eman baititzake.

Silverstein, Shel

Arbola esku zabala

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Arre: Pamiela, 2015

ISBN 978-84-7681-906-7

Arbola baten eta mutiko baten arteko harremana kontatzen digu narratzaileak. Hasieran harreman hori zintzoa eta zoriontsua da, elkarrekin jolas egiten dute. Haatik, mutikoak, nagusitzen doalarik, arbola bisitatzeari utziko dio, eta haren beharra duenean baino ez da gogoratuko zuhaitzaz. Arbola, ordea, mutikoaren zorientasuna



bermatzen saiatuko da, eta duen guztia emango dio, trukean ezer eskatu gabe: sagarrak, adarrak, enborra, eta, amaieran, atsedean hartzeko motzondo zahar bat, aulki gisa.

Arbola esku zabala Shel Silversteinek 1964an idatzitako ipuin bat da. Orain, 50 urte beranduago, eta Pamiela argitaletxeari esker, euskaraz irakurtzeko aukera paregabea daukagu. Zergatik paregabea? Hausnarketarako gai potoloak proposatzen dizkigulako: maitasuna, adiskidetasuna, mespretxua, natura, giza harremanak, asegabetasuna. Irakurlea hunkitu egingo da behin baino gehiagotan, hain da handia istorio honetan ikusten dugun amodio garbi eta erabat desinteresatua.

Zuri-beltzean egindako marrazki sinple eta garbiek istorioak darabilen hizkuntza poetikoa indartzen dute. Posible al da hain era errazean egoera bat deskribatzea, eta halako mezu sakona konpartitzea? Bai, goi mailako literatura baldin bada, eta horixe da, hain justu, album hau: kalitatezko literatura, klasiko bihurtu den liburu bat. Berdin dio 6 urte ala 90 izan, guztiontzat baita. Ez du inoiz aspertzen eta behin eta berriro irakurtzeko gogoia pizten du. Liburua irakurri ondoren, hainbat galdera darabiltzagu gogoan: zertan datza zoriontasuna? Zein da gure kontzientzia maila naturarekiko? Kontsumo-ondasunak beharrezkoak dira zoriontsu izateko?

Arbolak dena ematen dio mutikoari, eta zoriontsu da. Bai eskuzabala sagarrondoia, zeinen irakaspen ona!